



SALVADOR YANCIREN OMENEZKO VII. MARTXA ZIKLOTURISTA

ARAUDIA

1. DATA ETA LEKUA

Salvador Yanciren Omenezko VII. Martxa Zikloturista maiatzaren 14ean ospatuko da, igandea, goizeko 8:30etik aitzinera. Proba, aitzineko edizioetan bezala, ez-lehiakorra izanen da eta abiadura librekoa.

2. IBILBIDEA, KONTROL IREKIERA ETA ITXIERA ETA ANOA-GUNEA

Ibilbidea 119 kilometrokoa da, 1475 metroko maldarekin. Irteera eta helmuga Lesakako Plaza Zaharrea egonen da kokatuta.

Lasterketa goizeko 8:30ean abiatuko da eta kontrol itxiera eguerdiko 13:41ean izanen da.

Anoa-gunea, likido eta solidoekin, 49,2 kilometroan egonen da kokatua (Belateko gainan), eta 10:30ean izanen da bertako kontrol itxiera.

75 kilometroan (Orokietako gainan) likidoen anoa-gunea egonen da.

Helmugan luntxa eskainiko zaie martxako partehartzaile guztiei.

Martxa antolakuntzak neutralizatua joanen da 16 kilometrora bitarte (Berrizaun, N-121-A errepiderako sarbidean).

99,4 kilometrotik 106,1 kilometrora Bidasoko Bide Berdetik joanen da proba, eta bertako zirkulazio arauak errespetatu beharko dira.

Ibilbide guztia behar bezala seinalezatua egonen da zinta, bandera eta antolakuntzak bidegurutzetan jarriko dituen pertsona eta motoen bidez.

Ibilbidearen track-a elkartearen webgunean egonen da eskuragarri.

3. PARTEHARTZEA

15 urtetik gorako lasterkariak parte hartu ahalko dute proban. Adin txikiko txirrindulariek beren ama/aita/tutorearen baimena eman beharko diete antolatzaileei.

4. INSKRIPZIOAK ETA DORTSAL BILKETA

Izen-ematea online eta egunean bertan egin daiteke, eta gehienez 200 partehartzaile hartuko dira.

Federatuak ez direnei lizentzia eginen zaie soilik egun horretarako.

Aurretiko inskripzioak:



www.kirolprobak.com webgunean egin daitezke. Probaren egun berean ordainketa egiaztagiria entregatu beharko da dortsala biltzerakoan.

2023ko maiatzaren 12ko 23:00ak arte egin ahal izanen dira online bidezko inskripzioak. Egindako inskripzioen ordainketa ez da itzuliko.

Inskripzioen prezioa:

* OROKORRA: Federatuak: 12 euro. Ez Federatuak: 17 euro

* Beti Gazteko bazkideak: Federatuak: 7 euro. Ez federatuak: 12 euro

Egunean bertan egindako inskripzioak:

Probaren egunean, goizeko 7:00etatik aitzinera 8:15era bitarte, Udaletxeko arkupeetan egingen dira (Plaza Zaharra).

Inskripzioen prezioa:

* OROKORRA: Federatuak: 15 euro. Ez Federatuak: 20 euro

* Beti Gazteko bazkideak: Federatuak: 10 euro. Ez Federatuak: 15 euro

Dorsalen banaketa

Probaren egun berean, goizeko 7:00etatik 8:15 bitarte, hartu ahalko dira dorsalak, Udaletxeko arkupeetan (Plaza Zaharra).

5. ARAUDIAREN BETETZEA

Partehartzaile guztiak derrigorituak daude Espainiako Bide Segurtasunak markatzen dituen arauak errespetatzera.

Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko partehartzaileek sufritu ditzaketen istripuak.

Debekatua dago inskribatu gabe edo dorsalik gabe martxan parte hartzea. Zikloturistaren batek hala egingen balu, eta istripuren bat eragingo balu, bera izanen litzateke horren arduradun osoa. Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko modu horretan norberari edo hirugarren bati sortutako kalteak.


Antolakuntzak eskubide osoa izanen du ibilbidea, ordutegia, etab. aldatzeko, horretarako beharra ikusiko balu.

Kaskoaren erabilera derrigorrezkoa izanen da.

Modu zorrotzean, hurrengo arauak errespetatzen ez dituzten lasterkariak kanporatuak izan daitezke probatik:

- Zirkulazio-kodea errespetatzen ez duena
- Antolakuntzak eta orden-indarrak ezartzen dituzten segurtasun arauak errespetatzen ez dituenak
- Zaborra botatzen duena, ibilbidea zikinduz edota hondatuz
- Kaskorik eramaten ez duena
- Laguntzarako auto propioa duena, bertzeen martxa zailduz
- Martxa normaltasunez egitea eragozten duen jarrera duena eta araudiaren kontra doana
- Araudi hau betetzen ez duena

Lasterketa utzi nahi duenak antolakuntza taldeari adierazi beharko dio, irteeran erraztuko den telefono zenbakira deituz, edota ibilbidean dagoen edozein antolakuntzako kideri abisatuz.



Proban inskribatzeak araudi hau onartzea suposatzen du, baita sortzen diren kalteetatik eratorritako erakundearen kontrako eskubide guztiei uko egitea ere.

6. OSASUN-LAGUNTZA ETA DUTXAK

Antolakuntzak laguntza zerbitzu jarriko du ibilbidearen zenbait puntu estrategikoetan.

Aldagelak eta dutxak izanen dira eta behar bezala seinaleztatuak egonen dira.

Partehartzaile guztiak laguntza eskaintzera behartuak daude, istripuren bat gertatuz gero, baita kontroletan dauden pertsoneri abisatzera ere.

7. IRUDI-ESKUBIDEAK

Partehartzaile guztiek eskubidea ematen diote antolakuntzari, baita babesleei ere, lasterketan zehar ateratako argazki edota bideoak libreki argitaratzera.

Araudian jasotzen ez den bertze edozein gairi antolakuntzak berak emanen dio konponbidea.

Lesaka, 2023ko maiatzaren 14a

S.D.R.C. BETI GAZTE K.J.KE